

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDALA

Iragarkia

Zumaiako alkate jaunak, 2019ko abenduaren 20an emandako 1409/19 ebazpenaren bidez, martxan jarriko den HAZ Herritarrentzako Arreta Zerbitzurako administrari bat behin-behineko izaeraz kontratazeko oinarriak onartu zituen; horrekin batera, administrari-mailako lanpostuetan sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa eratzeko ere deialdia egin eta arautuko da oinarri horietan.

Eta horren berri ematen da dagozkion ondorioetarako. Bestetik, ebazpen honek administrazioaren bidea agortu du, eta horren aurka egiteko bi aukera ditu interesdunak; bata, berraztertze-errekurtsoa aurkeztea, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, Zumaiako Udal honen alkatearen aurrean; bestea, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Zumaia, 2019ko abenduaren 20a.—Alkatea. (8158)

Lehiaketa-oposizio bidez deialdi publikoa arautuko duten oinarriak administrari bat behin-behineko izaeraz kontratazeko Zumaiako Udalean martxan jarriko den HAZ Herritarrentzako Arreta Zerbitzurako, eta, horrekin batera, administrari-mailako lanpostuetan sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa eratzeko.

Lehena. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea da, alde batetik, Zumaiako Udalean martxan jarriko den HAZ Herritarren Arreta Zerbitzurako administrari bat behin-behineko izaeraz kontratazea, eta bestetik, Zumaiako Udalean –eta beste Udal batzuetan ere bai, betiere hautagaien oniritzia jasoz gero– administrari-mailako lanpostuetan sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko erabiko den lan-poltsa ere sortzea.

Hautatze-jardunbidea oposizio-lehiaketa izango da eta oinarri hauek arautuko dute.

Bigarrena. Postuaren ezaugarriak.

- Saila: Idazkaritza.
- Lanpostua: Administraria. Administrazio Orokorreko Eskala. Administrazioaren azpieskala.
- Taldea: C1.
- Destino osagarria: 16. maila.*
- Berariazko osagarria: urteko 15.511,44 €.*
- Urteko ordainsari gordina (antzinatasuna eta plusak aparte): 32.241,60 €.*

* Behin-behineko balorazio ekonomikoa da, martxan dagoen balorazio prozesua amaitzen denean zehaztuko da behinbetiko balorazioa.

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Anuncio

El alcalde de Zumaia, mediante decreto 1409/19 de 20 de diciembre de 2019, aprobó las bases reguladoras de la convocatoria para la contratación con carácter temporal de un/a administrativo/a para el Servicio de Atención Ciudadana (SAC) que en breve se pondrá en marcha; asimismo, con esas mismas bases se creará una bolsa de trabajo para cubrir las necesidades temporales que surjan en los puestos de administrativo/a.

Lo que se publica para general conocimiento y para que surta los efectos oportunos. Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, puede interponer alternativa o recurso de reposición potestativo, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, ante el Alcalde de este Ayuntamiento de Zumaia, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación.

Zumaia, a 20 de diciembre de 2019.—El alcalde. (8158)

Bases reguladoras de la convocatoria pública de concurso-oposición para la contratación con carácter temporal de un/a administrativo/a para el Servicio de Atención Ciudadana (SAC) que en breve se pondrá en marcha en el Ayuntamiento de Zumaia y para la creación de una bolsa de trabajo para cubrir las necesidades temporales que surjan en los puestos de administrativo/a.

Primero. Objeto de la convocatoria.

El objeto de las presentes bases es, por una parte, contratar con carácter temporal un/a administrativo/a para el Servicio de Atención Ciudadana (SAC) que en breve se pondrá en marcha en el Ayuntamiento de Zumaia, y por otra, crear una bolsa de trabajo para cubrir las necesidades temporales que surjan en los puestos de administrativo/as, tanto en el Ayuntamiento de Zumaia, como en otros ayuntamientos, siempre y cuando las personas aspirantes den su visto bueno.

El proceso de selección será el de concurso-oposición, regido por las presentes bases.

Segundo. Características del puesto.

- Departamento: Secretaría.
- Puesto: Administrativo/a. Escala de Administración General. Subescala de Administrativo/a.
- Grupo: C1.
- Complemento de destino: nivel 16*.
- Complemento específico: 15.511,44 €/año.*
- Retribución bruta anual (antigüedad y pluses aparte): 32.241,60 €.*

* Es una valoración económica provisional. La valoración definitiva se concretará al término del proceso de valoración que está en marcha.

– Lanaldia: % 100ekoa izango da eta zerbitzua modu egokian bete ahal izateko, Zumaia Udalak finkatutako ordutegia izango du. Ordutegia, sortzen diren beharren arabera, maigua izan daiteke.

– Hizkuntza-eskakizuna: 3. HE.

Hirugarrena. Lanpostuaren funtzioak.

– HAZera bertara joanda edo beste bitarteko batzuen bidez (telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo webgunea, sare sozialak...) HAZera jotzen duen jendeari arreta eskaini eta eskatutako informazioa eman; argibideak ere eman eskatu dituzten zerbitzu eta izapideen inguruan, eta betiere beharrezko laguntza guztia eskaini une oro.

– Udalean bertan, eta/edo leihatila bakarreko edo antzeko hitzarmenak tarteko, beste administrazio batzuetan aurkeztzen diren eskabideak eta dokumentazioa erregistratu eta eskaneatu eta Saileko administrariari pasatu, erregistroko fitxa bete eta dagokion moduan banatzeko.

– Beste administrazioekin hitzarmenak daudenean, Udalean aurkeztutako idatziak haietara bidaltzea.

– Leihatilan bertan jakinarazpenak egin, arrazoi desberdinen ondorioz ezin izan zaionean jakinarazpenik helarazi zergadunari.

– Teknikariekin egoteko alde zurretiko txanda sistema erabili, sistema hori jarrita badago.

– Planteatzen diren galdera eta eskaerak aztertu, eta horietatik izaera espezifikoak dutenak bidali Sailera, betiere aurretik txanda hartuta edo beste sistemaren bat erabilita, baldin eta halakorik jarrita badago.

– Kexa eta iradokizunak bideratu.

– Dokumentazioari sarrera eman (hirigintzako ziurtagiriak, ondasunei buruzkoak, txosten teknikoak, obra-lizentziak, errolda-agiriak, etab.).

– Udalean eta/edo beste administrazio publiko batzuetan eragina izan behar duen dokumentazioa konpultsatu.

– Kudeatzen dituzten datu-baseetan aldaketak sartu, ondoren egiaztatu eta eguneratzeko.

– Lehiaketen eta enkanteen liburuan datu guztiak eskatutako datetan erregistratu.

– Postaren ardura.

– Elektronikoki tramiteak egiteko txartela eman.

– Biztanleen Udal Erroldan altak, bajak eta aldaketak egin.

– Heriotzekin eta jaiotzekin errolda eguneratu.

– Akatsak zuzendu (EIN-INE).

– Kale-izendegia kudeatu eta sekzioak finkatu.

– Etorकिन eta atzerritarren gorabeherak eta horien errolda-berritzeak kudeatu eta egunean eduki.

– Biztanleen Udal Erroldari dagozkion estatistikak egin: hutsik dauden etxebizitzak, Gizarte Ongizateko Sailak eskatutako datuak, immigrazio-datuak, webgunearen bidez egindako eskaerak eta abar.

– Biztanleen zifra ofizialaren inguruko datuak berretsi eta alderatu.

– Haurrak atzerrira joateko baimenak prestatu.

– Zentsua eguneratuta izan Biztanleen Udal Erroldan oinarrituta, eta, ildo horretan, altak, bajak, aldaketak eta zuzenketak alderatu eta adin-nagusitasunera iristen diren gazteak zentsuan sartu.

– Sekzio bakoitzean dauden tartekak zehaztu.

– Jornada de trabajo: será del 100 %, y para el adecuado cumplimiento del servicio tendrá el horario fijado por el Ayuntamiento de Zumaia. El horario puede ser flexible, en función de las necesidades que surjan.

– Perfil lingüístico: PL 3.

Tercero. Funciones del puesto.

– Atender y dar la debida información al ciudadano que acuda al SAC o que se ponga en contacto con el servicio por otros medios (teléfono, fax, correo electrónico, página web, redes sociales...); asimismo, orientar acerca de los servicios o trámites solicitados, ofreciendo en todo momento la ayuda necesaria.

– Cuando haya convenios de ventanilla única o similares, registrar y escanear las solicitudes y documentación presentadas en otras administraciones y derivarlas a la persona administrativa del Departamento correspondiente, para que una vez cumplimentada la ficha de registro se distribuya en la debida forma.

– Expedir los documentos presentados en el Ayuntamiento a otras administraciones cuando haya convenios con ellas.

– Hacer las notificaciones directamente en ventanilla cuando por diversas razones no se puedan hacer llegar las notificaciones a la persona contribuyente.

– Utilizar el sistema de cita previa para reunirse con el personal técnico, en el caso de que esté implantado.

– Estudiar las cuestiones y solicitudes que se plantean y aquellas que tengan carácter específico derivarlas a los departamentos correspondientes, utilizando siempre el sistema de cita previa u otro, en el caso de que esté implantado.

– Dar curso a quejas y sugerencias.

– Dar registro de entrada a documentación (certificados de urbanismo, de bienes, informes técnicos, licencias de obras, documentos de empadronamiento, etc.).

– Compulsar la documentación que deba tener efecto en el Ayuntamiento o en otras administraciones.

– Introducir modificaciones en las bases de datos que gestionan para su posterior comprobación y actualización.

– Registrar todos los datos en el libro de concursos y subastas en las fechas solicitadas.

– Gestionar el correo.

– Dar la tarjeta para las tramitaciones electrónicas.

– Realizar altas, bajas y modificaciones del Padrón Municipal de Habitantes.

– Actualizar el Padrón con defunciones y nacimientos.

– Corregir errores (INE)

– Gestionar el callejero y determinar las secciones.

– Gestionar y llevar al día las incidencias de los inmigrantes y extranjeros, así como la renovación padronal de los mismos.

– Elaborar las estadísticas correspondientes al Padrón Municipal de Habitantes: viviendas vacías, datos solicitados por el Departamento de Bienestar Social, datos migratorios, solicitudes realizadas mediante la página web, etc.

– Confirmar y cotejar los datos referentes a la cifra oficial de habitantes.

– Preparar los permisos para que los/las menores puedan ir al extranjero.

– Tener el censo actualizado en base al Padrón Municipal de Habitantes, cotejando las altas, bajas, modificaciones y recificaciones e incluyendo en el censo a los jóvenes que cumplen la mayoría de edad.

– Detallar los tramos existentes en cada sección.

- NAN guztiak eta EIN-INEk bidaltzen dituen azterlanak eguneratu.
- Aurretiazko komunikazioaren bitartez egin daitezkeen obra-baimenak eman eta likidatu.
- Aurretiazko komunikazioaren bitartez egin daitezkeen jar-duera- baimenak eman eta likidatu.
- Txakur-jabeen lizentzia espedienteak bideratu.

- Txakur arriskutsuen espedienteak.
- Jardueren titulartasun-aldaketa.
- Obra txikiak.
- Hondakinen edukiontzietarako txartelak eman.
- Urola Kosta Udal Elkarterako diren eskaerak bideratu.

- Ediktuei eta isunei lotutako zereginak egin, taulan epearen barruan iragarri, eginbideak egitea, fotokopiak egin eta dokumentazioa izapidetu eta artxibatu.
- Ibilgailu berrien likidazioa egin, eta izapidetzeko inprimakiak bete eta likidazioa egin.
- Helbide fiskalen aldaketak.
- Kobrantza agirien edo ordainketa frogagiriaren kopia eman.
- Mugi txartela kargatu.
- Trafikoko helbide aldaketak.
- Bizi-agiria.
- Eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, betiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera badira.

Laugarrena. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak.

Aukeraketa prozesu honetan onartuak izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, hautagaiak, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea edo Espainian legezko bizilekua duen atzerritarra izatea.

Parte hartu ahalko dute, era berean, espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, haien mendekoak badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, Batxilergoa edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edukitzea (edo baliokidea den titulu edo ziurtagiria) edo gorako titulu baten jabe izatea.

Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

d) Euskarako tituluari dagokionez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE-IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna (edo baliokidea den titulu edo ziurtagiria) edo gorako titulu edo ziurtagiri baten jabe izatea.

3. HEren baliokideak diren ziurtagiri edo tituluak zein diren jakiteko, kontuan izan behar dira alde batetik, 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, eta bestetik, 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, eta hura osatzen duen 28/2019 Dekretua, otsailaren 26koa.

- Actualizar todos los DNI y estudios que envía el INE.

- Emitir y liquidar las licencias de obra que se puedan hacer con comunicación previa.
- Emitir y liquidar las licencias de actividad que se puedan hacer con comunicación previa.
- Tramitar los expedientes de licencia de propietarios de perros.
- Expedientes de perros peligrosos.
- Cambios de titularidad de actividades.
- Obras menores.
- Dar tarjetas para los contenedores de recogida de residuos.
- Dar curso a las solicitudes para la Mancomunidad de Urola Kosta.
- Hacer las tareas relacionadas con edictos y multas, anunciarlas en el tablón dentro del plazo, llevar a cabo las diligencias, hacer fotocopias, tramitar la documentación y archivarla.
- Hacer la liquidación de vehículos nuevos, rellenar los impresos de la tramitación y hacer la liquidación.
- Cambios de domicilio fiscal.
- Dar copias de impresos de cobro o resguardos de pago.
- Cargar las tarjetas Mugi.
- Cambios de domicilio de tráfico.
- Fe de vida.
- Hacer otros trabajos que se le encomienden, siempre y cuando tengan relación con la cualificación solicitada para desempeñar el puesto.

Cuarto. Condiciones y requisitos de los/las aspirantes.

Para ser admitidos en el proceso de selección y, en su caso, participar en el mismo, los/las aspirantes deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Ser ciudadano/a de un estado miembro de la Unión Europea, de un estado al que se le aplica la libre circulación de los/las trabajadores/as en virtud de la aplicación de Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y refrendado por el estado español, o ser extranjero/a con residencia legal en España.

Del mismo modo, podrán tomar parte en el mismo los cónyuges de ciudadanos/as españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no se encuentren separados de derecho y sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintinueve años o mayores de dicha edad dependientes.

b) Tener cumplidos los dieciséis (16) años en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, no superando la edad máxima para la jubilación forzosa.

c) Antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes, estar en posesión, como mínimo, del título de Bachillerato o Formación Profesional de Segundo Grado (o equivalente).

En el caso de titulaciones extranjeras, será necesario el certificado de homologación de las mismas.

d) En lo referente a la titulación de euskera, estar en posesión del perfil lingüístico 3 concedido por el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) (o de título o certificado equivalente) o de título o certificado superior.

Para saber cuáles son los certificados o titulaciones equivalentes al PL3, han de tenerse en cuenta, por una parte, el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, y por otra el Decreto 47/2012, de 3 de abril, actualizado con el Decreto 28/2019, de 26 de febrero.

Instantziarekin batera titulua aurkezten ez dutenek, hautaketa prozesuan zehar egingo diren proben bitartez gaitasun hori egiaztatzeko aukera izango dute.

e) Lanpostuen berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Honako hau dagokion unean egiaztatu beharko du proposatutako hautagaiak.

f) Diziplinazko auzibide bidez zerbitzutik apartatua ez egoitea, Administrazio Publikoari edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren bidez desgaitasun erabatekoan edo berezian ez aurkitzea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ez eta lan kontratuko enplegatuen kasuan, zerbitzutik apartatu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez aurkitzea, eta bere estatuan egoera berean egonda, enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzaitekeen diziplinazko santziorik edo horren parekorik jasoa ez izatea.

g) Enplegatutako publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagozkien legezko xedapenak ezarritako baldintzetan.

Hautagaiak, deialdian onartuak izateko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, beteta eduki behar dituzte baldintza horiek eta lanpostuaz jabetu arte bete.

Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, hautagai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

Hasiera baten, eskabideetan jaso dituzten datuei lotuta geldituko dira hautagaiak. Hala ere, idatzi arrazoitu baten bidez, datuak aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskabideak aurkezteko ezarri den epearen barruan. Epe hori igaro ostean, ez da horrelako eskaerarik onartuko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak, II. eranskinean eranstean den eredu ofizial normalduaren bitartez, Zumaiako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Foruen enparantza 1 / 20750 Zumaiak) edo www.zumaia.eus egoitza elektronikoen erregistro elektronikoen bidez, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta 20 egun naturaleko epean.

Halaber, aukera izango da, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan izendatzen dituen leku eta erregistroetan ere aurkezteko. Bertan araututakoari jarraikiz, eskaerak, posta-administrazioetan aurkezteko, Udaleko Alkateari zuzenduko zaizkio gutun-azal ireki batean, posta-bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jarri diezaion, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Baldintza hori betetzen bada soilik onartuko da posta-bulegoko aurkezpen eguna Erregistro Orokorreko sarrera-data gisa.

Puntu hauek kontuan hartu beharko dira:

a) Hautagaiak, deialdian parte hartzeko onarpena eskatuko dute eta laugarren atalean eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere instantziak aurkezteko epe amaierako datarako.

b) Hautagaiak, instantzian adierazi beharko dute oposizioari ariketak Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan

Las personas que no presenten la titulación junto con la instancia podrán acreditar su capacitación lingüística mediante las pruebas a realizar durante el proceso de selección.

e) Poseer la capacidad funcional necesaria para el desempeño correcto de las funciones propias de los puestos de trabajo. Dicha capacidad deberá ser acreditada cuando corresponda por el/la aspirante propuesto/a.

f) No encontrarse apartado del servicio por causa disciplinaria en lo que respecta a las Administraciones Públicas o a los órganos constitucionales o órganos estatutarios de las comunidades autónomas, y no encontrarse en situación de inhabilitación total o especial por resolución judicial, para el desempeño de empleo o cargo público, para optar al cuerpo o escala funcional, o, en el caso de empleados/as laborales, para el desempeño de funciones similares a las correspondientes a los/las trabajadores/as del puesto del que fue apartado/a o inhabilitado/a para el servicio. En el caso de ciudadanos/as de otros estados miembros, no encontrarse inhabilitado/a o en situación similar, y estando en situación similar en su estado, no haber recibido sanción disciplinaria o similar susceptible de impedir el ejercicio de empleo público.

g) No estar incurso/a en ninguna otra incapacidad o incompatibilidad susceptible de impedir su acceso a la categoría de empleado/a público/a, en las condiciones establecidas por las disposiciones legales correspondientes.

Los/las aspirantes, antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes para su admisión en la convocatoria, deberán reunir las citadas condiciones, manteniéndolas hasta la toma de posesión del puesto.

Asimismo, en cualquier momento del procedimiento, si llega a conocimiento del Tribunal que alguno/a de los/las aspirantes no cumple las obligaciones o condiciones exigidas en la convocatoria, dicha persona quedará excluida del procedimiento, tras el trámite de audiencia correspondiente, de todo lo cual se dará debida información, el mismo día, a la autoridad que ha realizado la convocatoria del proceso de selección.

En principio, los/las aspirantes quedarán vinculados/as a los datos que ofrecen en las solicitudes. De todas maneras, mediante escrito razonado podrán solicitar la modificación de los datos, dentro del plazo establecido para la presentación de solicitudes. Transcurrido el mismo, no se aceptarán solicitudes en este sentido.

Quinto. Presentación de solicitudes.

Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Zumaia (Foruen enparantza 1/ 20750 Zumaia), mediante el modelo oficial normalizado recogido en el anexo II o mediante registro electrónico en la sede electrónica www.zumaia.eus, en el plazo de 20 días naturales contados a partir del siguiente al de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del anuncio de convocatoria.

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en las administraciones postales, tal y como dispone el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común. En este caso, las solicitudes se dirigirán a Alcaldía, en sobre abierto para que el/la funcionario/a de la oficina postal date y selle las mismas, dentro del plazo de presentación de solicitudes. El cumplimiento de dicha condición será requisito indispensable para la consideración de la fecha de presentación de la solicitud en la oficina postal como fecha de entrada en el Registro General.

Se tendrá en cuenta lo siguiente:

a) Los/las aspirantes solicitarán su admisión en la convocatoria, exponiendo que cumplen todas las condiciones recogidas en el apartado cuarto en la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Los/las aspirantes deberán exponer en la instancia en qué idioma de entre los oficiales de la comunidad autónoma de

egin nahi dituzten. Edozein kasutan ere, epaimahaiak erabakiko balu, gaitasun psikologikoak ebaluatzeke proben diseinu eta garapenerako kanpoko entitate espezializatutako baten laguntza eskatzea, probak diseinatuta dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira.

c) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte hautagaiek:

1. NAN fotokopia, edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena beste estatu bateko hautagaien kasuan.

2. Batxilergoa edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketa (edo baliokidea den titulu edo ziurtagiria) edo gorako tituluaren fotokopia, edo titulazioa erdiesteko ordaindu beharreko eskubiak ordainduta dauzkatala dioen frogagiria.

3. Euskara azterketarik ez egiteko, hautagaiek, 3. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopiaren bidez edo laugarren ataleko d) puntuan azaltzen den moduan, 3. HEren baliokide den ziurtagiri edo titulu baten fotokopiaren bidez frogatuko dute.

Hautaprobetan, hala eskatuz gero, ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko zaizkie egokitzapenak behar dituzten eta eskabidean hala adierazi duten % 33ko edo hortik gorako ezintasuna duten hautagai ezinduei, halakorik badago.

Kasu hauetan, eskaerarekin batera, ezintasun-maila zehazteko organo tekniko eskumendunak emandako irizpen teknikoa aurkeztu beharko dute, eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren ala ez balioetsi ahal izan dezan epaimahaiak.

Seigarrena. Hautagaien onarpena.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkateak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Zumaia Udaletxeko iragarki-taulan eta www.zumaia.eus webgunean argitaratuko da; argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 laneguneko epea emango da, baztertu izana eragin duten akatsak edo hutsuneak zuzentzeko nahiz zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik egiten ez bada, izangaien behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da.

Erreklamaziorik egonez gero, balioetsi edo ezetsi egingo dira; eta, kasu horretan, behin-behineko zerrendarako adierazitako moduan argitaratuko da behin betiko zerrenda ere.

Onartutako zerrendan agertzeak ez du nahitaez esan nahi hautaketa prozesuan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea aitortzen zaienik hautagaiei.

Zazpigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hartarako eskumena duen organoak izendatuko ditu epaimahaietako kideak (lehendakaria, bokalak eta idazkaria), eta haiek kalifikatuko dituzte hautaprobak.

Izendatutako epaimahaiakideak, titularrak nahiz ordekoak, Zumaia Udaletxeko iragarki-taulan eta www.zumaia.eus webgunean argitaratuko dira.

Mahaikideek ez dute esku hartuko, edo errefusatuak ahal izango dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko, urriaren 1eko, 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasota dauden egoeretako bat gertatzen denean, edo deialdia argitaratu aurretiko bost urteetan hautaketa probetarako hautagaiak prestatzen jardun badute.

Hautaketa organoak kolegiatuta jardungo du eta bere osaketa, berriz, profesionaltasun- eta inpartzialtasun printzipioei jarraituz egingo da. Era berean, emakume eta gizonen arteko partekotasuna gogoan hartuko da (% 40, gutxienez, sexu bakoitzekoa).

sean realizar los ejercicios de la fase de oposición. Dependiendo de si el Tribunal considere oportuno recurrir a la ayuda de entidad especializada externa para el diseño y desarrollo de las pruebas de valoración de la capacitación psicológica, en este caso, éstas se realizarán en el idioma o en los idiomas en que estén diseñadas.

c) Junto con la solicitud, los/las aspirantes deberán presentar la documentación siguiente:

1. Fotocopia del DNI, o del documento acreditativo de la identidad y nacionalidad en el caso de aspirantes de otro estado.

2. Fotocopia del título Bachillerato o Formación Profesional de Segundo Grado (o título o certificado equivalente), como mínimo, o certificado de abono de los derechos para su consecución.

3. Para la no realización de la prueba de euskera, los/las aspirantes acreditarán mediante fotocopia del documento correspondiente estar en posesión del perfil lingüístico 3 o, tal y como se recoge en el punto d) del apartado cuarto, deberán presentar fotocopia del certificado o título equivalente al perfil lingüístico 3.

En las pruebas de selección, los tiempos para la realización de las mismas y los recursos necesarios se adaptarán a los/las aspirantes con una incapacidad del 33 % o superior que necesiten adecuación y que así lo hayan expuesto en la solicitud.

En estos casos, junto con la solicitud deberá presentarse el dictamen del órgano técnico competente para la determinación del nivel de incapacidad, para que el Tribunal pueda valorar la procedencia de las adecuaciones solicitadas.

Sexto. Admisión de aspirantes.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el alcalde aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/as. Dicha relación se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web www.zumaia.eus; a partir del día siguiente a la publicación, y durante un plazo de 10 días laborables, se podrán subsanar los errores o faltas que hayan provocado la exclusión de la relación, y se podrán interponer reclamaciones contra la misma.

En caso de no presentarse reclamación alguna, la relación provisional devendrá en definitiva.

En caso de reclamación, ésta podrá ser admitida o rechazada; y, en su caso, la relación definitiva se publicará del mismo modo que la relación provisional.

La presencia en la relación de aspirantes admitidos/as no presupone el reconocimiento de que los/las aspirantes cumplen todas las condiciones exigidas en el proceso de selección.

Séptimo. Tribunal calificador.

El órgano competente nombrará los/las miembros del Tribunal (presidente/a, vocales y secretario/a), los/las cuales calificarán las pruebas de selección.

La relación de los/las miembros nombrados del Tribunal, tanto los/las titulares como los/las suplentes, será publicada en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página www.zumaia.eus.

Los/as miembros del Tribunal deberán abstenerse o podrán ser recusados/as si concurren las circunstancias previstas en los arts. 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, o si hubieren realizado tareas de preparación de aspirantes a pruebas selectivas en los cinco años anteriores a la publicación de esta convocatoria.

El órgano de selección será colegiado y su composición deberá ajustarse a los principios de imparcialidad y profesionalidad de sus miembros, y se tenderá, asimismo, a la paridad entre mujer y hombre (mínimo un 40 % de cada sexo).

Epaimahaia osatuko duten mahaikideen erdiak gutxienez eduki behar du lanpostu bakoitza eskuratzeko eskatzen den titularen ezagupen arlo bereko titulua, eta mahaikide guztiek ikasketa-maila bereko edo handiagoko titularen jabe izan beharko dute.

Epaimahaiak gai jakinetako aditu edo aholkularien lankidetzaz eska lezake, proba batzuetarako komenigarritzat jotzen badu.

Epaimahaiaren jarduna, une oro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko, 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu gabe. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehen-dakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko.

Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

Epaimahaiburua edo haren ordezkoren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkatu du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzailearen kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kide hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomiaz jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanik. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebartziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarrita.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabehera guztietarako, epaimahaiak honako helbide hau du: Zumaiako Udala, Pertsonal Saila, Foruen enparantza 1, 20750 Zumaia.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garena. deialdiak eta jakinarazpenak.

Oposizio lehenengo ariketa non eta noiz izango den Zumaiako udaletxeko iragarki-taulan eta www.zumaia.eus udalwebgunean emango da argitara.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Deitzen zaion unean izangai bat ez bada agertzen proba horietako edozeinetara, besterik gabe, galdu egingo du ariketa edo proba horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea. Beraz, hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokitu dizkie egokitzapenak behar izan eta eskabidean hala eskatu eta justifikatu duten ezinduei, gainerako parte-hartzaileen aukera berberak izan ditzaten, betiere hori eginda probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila jaisten edo kaltetzen ez bada.

Lehenengo ariketaren ondoko gainerako ariketei dagokienez, hasi baino 12 ordu lehenago gutxienez iragarriko du epaimahaiak ariketa, baldin eta ariketa berbera bada, edo 24 lehe-

Al menos la mitad de los/as Vocales integrantes del Tribunal Calificador deberán poseer una titulación correspondiente al mismo área de conocimientos que la exigida para el ingreso, y la totalidad de los/as mismos/as de igual o superior nivel académico.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores/as expertos/as en las materias de que se trate.

El procedimiento de actuación del Tribunal se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia al menos de tres (3) de sus miembros titulares o suplentes, sin contar el/la secretario/a. Los acuerdos se adoptarán por el voto favorable de la mayoría de los miembros presentes del Tribunal, resolviendo, en caso de empate, el voto de calidad de la presidencia.

Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, excepto quien ocupe la Secretaría, que tendrá voz pero no voto.

En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal del/de la presidente/a y de su suplente, la presidencia será asumida por el/la vocal que se nombre para dicha suplencia y, en su ausencia, el/la vocal de mayor edad entre los miembros del Tribunal Calificador.

La sustitución de la secretaría, en casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte al/a la mismo/a y a su suplente, recaerá en cualquier otro de los miembros del Tribunal Calificador, elegido por acuerdo mayoritario de este.

El Tribunal Calificador actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad. Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de las Bases y adoptará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo del presente concurso-oposición, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en aquellas.

En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal tuviere conocimiento de la existencia de aspirantes que no cumplan alguno de los requisitos exigidos por la presente convocatoria, previa audiencia del interesado, deberá proponer al órgano competente su exclusión del mismo, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por el/la aspirante en la solicitud.

La dirección del Tribunal a efectos de comunicaciones y demás incidencias será la siguiente: Zumaiako Udala. Pertsonal Saila. Foruen enparantza 1, 20750 Zumaia.

Octavo. Comienzo y desarrollo del proceso de selección, convocatorias y notificaciones.

El lugar y la fecha para la realización del primer ejercicio de la oposición se anunciarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página www.zumaia.eus.

Se realizará una única convocatoria a los/las aspirantes para cada ejercicio de la fase de oposición. En el caso de que algún/a aspirante no se persone a cualquiera de las pruebas en el momento en que sea convocado/a para las mismas, perderá el derecho a participar tanto en dicho ejercicio o prueba como en los siguientes. Por lo tanto, quedará excluido/a del proceso de selección.

El Tribunal ajustará los tiempos y recursos necesarios para la realización de los ejercicios a las personas discapacitadas que así lo hayan solicitado y justificado, para que gocen de las mismas oportunidades que el resto de aspirantes, siempre que tales adecuaciones no desvirtúen el contenido de la prueba en cuestión y sin reducir el nivel de capacitación exigido en cada caso.

Una vez realizado el primer ejercicio, el Tribunal anunciará con una antelación de 12 horas como mínimo los siguientes ejercicios, en caso de ser el mismo ejercicio, y con 24 horas de ante-

nago gutxienez, baldin eta beste ariketa bat bada. Iragarkiak, Zumaia Udaletxeko iragarki-taulan eta www.zumaia.eus webgunean argitaratuko dira.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, hautagai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berari entzun eta gero, eta hautaketa-prozedura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

Epaimahaiak oposizio-faseko ariketen ordena aldatzea erabaki dezake. Hala eginez gero, ariketa hasi baino 12 ordu lehenago gutxienez jakinaraziko die hautagaiei.

Interesatuak www.zumaia.eus webgunean eskura dezakete deialdiari buruzko informazio orokorra. Webguneak izaera informatiboa izango du. Bertan begiratu ahal izango dira, besteak beste: oinarriak, onartutakoen zerrenda, ariketen datak eta lortutako kalifikazioak.

Bederatzigarrena. Oposizio-lehiaketa.

